

Nafarroako Gobernuaren adierazpen instituzionala, zeinaren bidez konpromisoa hartzen duen herri-akzioa gauzatzeko emakumeen aurkako indarkeria kasu larrietan.

Nafarroako Gobernuak emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko duen konpromisoa helarazi nahi die herritarrei, emakume batek ere ez ditzan ukaturik izan bere funtsezko eskubideak eta askatasunak, hala nola berdintasuna, segurtasuna eta duintasuna. Zentzu horretan, emakumeen aurkako indarkeria erabat kondenatzen dugu, haien giza eskubideen bortxaketa handia baita, eta emakumeen eta gizonen arteko errespetuaren eta berdintasunaren alde egiten dugu.

Azken urteotan erakunde publikoak zein oro har gizartea gero eta gehiago ari dira jabetzen emakumeen aurkako indarkeria zigortzeko arauzko tresnak artikulatu beharraz eta, orobat, neurriak hartu beharraz emakumeek eta gizonek giza baliabideen urraketa horren kontrako jarrera irmoa har dezaten.

Nafarroan, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea bihurtu da emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen guztiei heltzeko legezko tresna. Lege hori profesionalen, emakume elkarten eta/edo elkarte feministen eta, oro har, herritarren adostasunaren fruitua izan zen. Indarkeria egoeran dauden emakumeei eskubidedun subjektu izaera aitortzen die, Administrazioa behartuz emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean behar bezalako prestasunez jokatzera.

Genero berdintasunaren politiken esparruan kokatzen den eta giza baliabideen ikuspegitik landu den lege horrek emakumeen aurka erabiltzen diren indarkeria mota guztiei heltzen die, besteak beste sexu indarkeriari, edozein delarik ere hura agertzeko modua edo esparrua, publikoa, pribatua, lanekoa, hezkuntzakoa edo komunitatekoa izan.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 65. artikulua ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak prozedura penaletan pertsonatzea erabakitzen ahalko duela herri-akzioa egikaritzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren kasu larrietan edo delitu ekintzaren ondorioz emakumea hiltzen denean.

Horrenbestez, genero indarkeriaren arloko foru legearekin bat, Nafarroako Gobernuak legearen 65. artikuluan aipatzen diren kasuetan pertsonatzeko eta herri-akzioa gauzatzeko hartu duen konpromisoa adierazi nahi du, indarkeria mota hori desberdintasunaren eta genero bereizkeriaren ondorioztat hartzen baitu.

Horrez gain, Gobernuak aditzera eman nahi du emakumeen kontrako indarkeria kasuen aurrean esku-hartze profesionala egunez egun hobetzeko duen konpromisoa, arlo horren inguruan ikertuz eta ezagutza sortuz, erakunde arteko koordinazioa hobetuz, errealitate horri aurrea hartzen lagunduz eta, batez ere, egoera horretan dauden emakumeei nahiz zuzenean haien mende daudenei behar diren baliabideak emanaz beren bizitza eta, horrekin batera, gizarte osoarena duintzeko. Modu horretan, bere borondate politikoa erakutsi nahi du, gizarteak dagoeneko egin duen moduan, herritarren erantzuna ereduakoa izan baita eta erakutsi duten jarrera argia eta irmoa.